

EPE Nafarroa 2024

Maisu-maistren kidegoa

286/2023 EBAZPENA, urriaren 27koa, maisu-maistren kidegoan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kudeaketa esparruko lanpostuetan sartzeko hautapen prozedura, eta bestetik, maisu-maistren kidegoko karrerako langile funtzionarioek kidego horretan espezialitate berriak eskuratzeko prozedura.



BIRJARTZEA

1. Maisu-maistren kidegoko plazak

→ 148 sarbide librekoak

→ 12 %33ko edo gehiagoko desgaitasun maila dutenentzat erreserbatuak

Erreserbatutako lanpostuak betetzen ez badira, sarrera libreko plazei gehituko zaizkie.

2. Plazen banaketa

Espezialitatea	Librea	Erreserba	Guztira
Entzumena eta Hizkuntza (gaztelania)	10		10
Haur Hezkuntza (gaztelania)	24	2	26
Haur Hezkuntza (euskara)	15	1	16
Lehen Hezkuntza (gaztelania)	53	5	58
Lehen Hezkuntza (euskara)	23	2	25
Pedagogia Terapeutikoa (gaztelania)	18	2	20
Pedagogia Terapeutikoa (euskara)	5		5

3. Izangaien betebeharrak

Betebehar orokorrak

Jatorri espainiarra edo EBko estatu kideren batekoa izatea, 18 urte beteak izatea, eritasun edo muga fisiko/psikiko bateraezinik ez izatea, diziplina espediente bidez administratiboki bereizi ez izana, karrerako funtzionarioa ez izatea, Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketaren Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa izatea.

Eskakizun espezifikoak

Maisu-maistren titulua edo kasuan kasuko gradua, Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomadun titulua edo Lehen Irakaskuntzako maisu-maistren titulua.

Hizkuntza eskakizunak

Euskaraz eman beharreko lanpostuetan sartzeko, EGA edo baliokidea eduki beharko da.

4. Epeak, eskaerak eta dokumentazioa

Epea: azaroaren 24tik abenduaren 13ra.

Eskabidea: telematikoki

<https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/concurso-oposicion-maestros-2024>

Dokumentazioa:

Modu orokorrean

- 1. NAN edo baliokidea.** Kopia bat bi aldeetatik eskaneatua eta dokumentu bakarrean.
- 2. Erantzukizunpeko adierazpena, inongo Administrazio Publikoren zerbitzutik diziplina espediente bidez berezia ez dagoela edo eginkizun publikoetarako desgaitua ez dagoela adierazten duena** (eskaera-inprimakian eskuragarri dagoen "manifestua" onartuz).
- 3. Tasaren ordainketa** (parte hartzen den espezialitate eta hizkuntza bakoitzeko 41,60€). Bide telematikoz egingo da, eskaera formalizatzen den unean. Ez dute tasarik ordaindu beharko $\geq 33\%$ desgaitasunen bat duten pertsonak edo deialdia argitaratu baino hilabete bat lehenagotik gutxienez, langabe gisa inskribaturik dauden pertsonak.
- 4. Eskatzen den tituluaren** kopia bi aldeetatik eskaneatua eta dokumentu bakarrean.
- 5. Merezimenduen** frogagiriak, I.eranskinean agertzen den baremoan ezarritakoaren arabera.

Xehetasunak

- 6. Euskarazko lanpostuetarako:** EGA edo baliokidearen kopia eskaneatua.
- 7. Beste nazionalitate bateko izangaiak:** NAN edo pasaporteak, erantzukizunpeko adierazpena disziplina zehapenik edo zigor penalik ez duela adierazten duena (telematikoa), gaztelaniaren ezagutza frogatzen duen tituluaren kopia eskaneatua.
- 8. $\geq 33\%$ ko desgaitasuna duten izangaiak:** Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agenciako Mendekotasuna Baloratzeko eta Orientatzeko Taldeek emandako ziurtagiria, edo beste irizpiden lotesle bat, $\geq 33\%$ ko desgaitasuna egiaztatzen duena, horretaz gain, eskatzen dituzten denbora eta baliabide egokitzapenak eta IMSERSO edo autonomia erkidegoko organo eskudunak emandako ziurtagiria.

5. Hautapen prozesuen garapena

Lehiaketaldia 1/3	Oposizioaldia 2/3	
Merezimenduak	Lehenengo proba	Bigarren proba
Aurretiko irakaskuntza- esperientzia. Gehienez 5p.	A. Proba praktikoa. 2o. %50 (gutxienez 2,5). III.eranskina	A. Programazio didaktikoa. %30 (gutxienez 2,5). V.eranskina
Prestakuntza akademikoa. Gehienez 5p.	B. Gai teorikoa. 2o. %50 (gutxienez 2,5). II.eranskina. 2 bolatxo.	B. Unitate didaktikoa. %70 (gutxienez 2,5). V.eranskina 3 bolatxo
Beste batzuk. Gehienez 2p.		
Gehienez 10 puntu	Gehienez 5 puntu	Gehienez 5 puntu

Hautapen proba guztiak hizkuntza espezialitateei edo espezialitatea emango den hizkuntzari dagokion hizkuntzan egingo dira.

6. Merezimenduak baloratzeko baremoa

Merezimenduak (gehienez 10 puntu)

I. Irakasle esperientzia (gehienez 5p)	
I.1. Kidego berean ikastetxe publikoetan: 1p urte oso bakoitzagatik, 0,0833p hilabete/urte frakzio bakoitzagatik.	
I.2. Beste kidego batzuetan ikastetxe publikoetan: 0,5p urte oso bakoitzagatik, 0,0416p hilabete/urte frakzio bakoitzagatik.	
I.3. Kidegoko maila edo etapa bereko espezialitateetan, bestelako ikastetxeetan: 0,5p urte oso bakoitzagatik, 0,416p hilabete/urte frakzio bakoitzagatik.	
I.4. Kidegoko maila edo etapakoak ez diren espezialitateetan, bestelako ikastetxeetan: 0,25p urte oso bakoitzagatik, 0,0208p hilabete/urte frakzio bakoitzagatik	

Prestakuntza akademikoa (gehienez 5p)		
II.1. Alegatutako tituluari dagokion espediente akademikoaren batez besteko nota:		
0 - 10 eskala:	0 - 4 eskala:	
6tik 6,99ra	1,5etik 1,99ra	1
7tik 8,49ra	2tik 2,74ra	1,25
8,5etik 10era	2,75etik 4ra	1,50
II.2 Graduondoak, doktoretzak eta aparteko sariak		
1. Eskakizun ez diren ikasketa aurreratuen ziurtagiria/diploma, master titulu ofiziala, ikertzeko nahikotasuna edo baliokidea		1
2. Doktore titulua		1
3. Doktoretzan lortutako aparteko sari bakoitzeko		0,5
II.3. Unibertsitateko beste titulu batzuk (eskakizuna ez direnean)		
1. Lehen zikloko tituluak		1
2. Bigarren zikloko tituluak		1
II.4. Araubide bereziko irakaskuntzetako eta berriazko lanbide heziketako titulazioak		
a. Musika edo dantzako titulu profesionala		0,5
b. Hizkuntza eskola ofizialek emandako maila aurreratuko ziurtagiria		0,5
c. Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi mailako teknikari titulua		0,2
d. Lanbide Heziketako goi mailako teknikari titulua		0,2
e. Goi mailako kirol teknikari titulua		0,2
II.5. Atzerriko hizkuntzak jakitea		
ACLESek onartuta atzerriko hizkuntzen ezagutza, C1 edo C2		0,5

Beste merezimendu batzuk (gehienez 2p)	
III.1. Etengabeko prestakuntza (gehienez 1p)	
10 prestakuntza ordurengatik (gehienez 500 ordu)	0,02
III.2. Euskara, ingeles, aleman edo frantses tituluak	
a. C1 edo C2	0,5
b. B2	0,25

7. Oposizioaldiko probak (IV. eta V.eranskinak)

7.1 Lehenengo probak. A eta B atalak. Proba praktikoa eta gaia

Bi probak baztertzailerak izango dira. Bigarren probara pasatzeko, lehenengo proban gutxienez 5 puntu lortu beharko dira.

Proba praktikoa (III.eranskina)

Gehienez 2 ordu.	0etik 10erako puntuazioa.
Lehen probaren kalifikazioaren %50.	Gutxienez 2,5 batezbestekoa egiteko.

Baloratze irizpideak (IV.eranskinak)

I. Prestakuntza zientifikoa (zorrotasun teknikoa eta espezialitatearen gaineko ezagutza zientifikoa)

- Planteamenduaren justifikazioa edo funts teorikoa.
- Hizkera tekniko zehatza eta zuzena. Espezialitatearen gaineko ezagutza zientifiko eta tekniko eguneratua eta zorrotza aplikatzea.
- Zientzia-, curriculum- eta pedagogia-ezagutzetan oinarritutako planteamendu didaktikoak eta antolakuntzakoak egitearekin lotutako kasu praktikoetan.

II. Espezialitatearen berezko trebetasunak (trebetasun teknikoak menderatzea, bai eta estrategia eta teknika didaktiko-pedagogikoak ere)

- Kasu praktikoak eta haien atalak modu zuzen, ordenatu eta eraginkorrean ebatzi dira.
- Proposatutako egoeretarako egokiak diren estrategia tekniko eta/edo metodologikoak aplikatu dira.
- Kasuaren arabera, trebetasun teknikoak erakutsi dira espezialitatearen berezko lanabes, tresna, protokolo eta prozeduren erabileran.

Gaia (II.eranskina)

Ausaz aukeratutako gai bat idatziz garatzea.

Gehienez 2 orduko denbora.	Lehenengo probaren kalifikazioaren %50.
Kalifikazioa 0tik 10era.	Gutxienez 2,5 batezbestekoa egiteko.

Baloratze irizpideak (IV.eranskina)

I. Gaiaren antolaketa

- Gaia modu egokian justifikatzea.
- Sekuentzia logiko eta koherente bati jarraitzea zati guztiak garatzean.
- Gaia modu orekatuan garatu da.

II. Berariazko edukia

- Gaiaren edukien eguneratze eta sakontasun maila.
- Gaiaren berezko hizkera teknikoa erabiltzeko zorroztasuna eta zehaztasuna.
- Erreferentzia bibliografiko egokiak eta eguneratuak.

III. Aipamen didaktikoak

- Edukiak duen harremana Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza sistemarekin eta berezko curriculumarekin eta irakaslanarekin.
- Gaiari lotutako proposamen didaktiko originalak eta berritzaileak egitea.

7.2 Bigarren proba. A eta B atalak. Programazio didaktikoa eta unitate didaktikoa

Araudia

- Haur Hezkuntzako araudia:

- 61/2022 FD, ekainaren 1ekoa (HHko curriculum).
- 62/2022 FA, abuztuaren 8koa (irakaskuntzen ezarpena eta ordutegia).
- 59/2023 FA, ekainaren 30ekoa (ikasleen ebaluazioa).
- 69/2023 FA, abuztuaren 21ekoa (hezkuntza inklusioa).

- Lehen Hezkuntzako araudia:

- 67/2022 FD, ekainaren 22koa (LHko curriculum).
- 62/2022 FA, abuztuaren 8koa (irakaskuntzen ezarpena eta ordutegia).
- 52/2023 FA, ekainaren 12koa (ikasleen ebaluazioa eta maila igoera).
- 69/2023 FA, abuztuaren 21ekoa (hezkuntza inklusioa).

Programazio didaktikoa

Bigarren probaren kalifikazioaren %30.	0etik 10erako kalifikazioa.
Gutxienez 2,5eko puntuazio batezbestekoa atera ahal izateko.	

Aurkezpenean programazioaren kopia bat eta material gehiagarria erabiltzen ahalko dira.

Zehaztasun teknikoak (V.eranskina)

- Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko bat hartu beharko da testuinguru gisa, 2023-24 ikasturtean.
- Parte hartzen den espezialitatearekin lotutako arlo edo eremu baten curriculumari buruzkoa izanen da.
- Honakoak zehaztuko dira: funtsezko konpetentziak, konpetentzia espezifikokoak, ebaluazio irizpideak, oinarriko jakintzen sekuentzia, ikaskuntza egoerak, ebaluazio prozedurak eta tresnak, kalifikazio irizpideak, erreku-peraziorako sistema (LHn soilik), metodologia, materialak eta baliabide didaktikoak, aniztasunari erantzutea, jarduera osagarriak, zeharkako elementuak eta programazioaren jarraipena eta ebaluazioa.
- Espezialitateko irakasleek irakasteko eskumena duten hezkuntza maila edo etapa baten ikasturte baterako prestatuko da.

- Gehienez ere 50 orrialde zenbakitu, DIN-A4 formatuan, lerroarte arrunta, 12 puntuko Arial letra, konprimitu gabe (grafika, taula, irudi eta antzekoetan 10 puntuko Arial erabili ahalko da). Argazki-oinetan, orri-oinetan eta goiburuan Arial ez den beste letra mota eta aipatutakoak baino txikiagokoak erabiltzen ahalko dira).
- Azala: diseinu librea, izena, abizenak eta NAN zenbakia derrigorrez.
- Gutxienez 10 unitate didaktiko zenbakidun.
- Azala, kontrazala eta aurkibidea ez dira zenbatuko 50 orrialde horien barruan.
- Borondatez erantsitako eranskinak edo material lagungarria, baimendutako orri kopuruaren barruan joango dira, aipatutako ezaugarri teknikoekin.

Aurkezpenaren eta defentsaren balorazio irizpideak

Programazio didaktikoak ez baditu betetzen V.eranskinean adierazitako formazko betebeharrak, probaren zati horri dagokion puntuazioaren %50 kenduko zaio izangaiari. Hauek dira formazko betebeharrak:

- Antolaketa:
 - Programazioaren aurkezpena eta justifikazioa egitea eta Nafarroako Foru Komunitatean indarrean dagoen curriculumaren araberako testuingurua azaltzea.
 - Ongi planteatuak egotea programazioa osatzen duten elementuak, atalen koherentzia eta proposatzen duen sekuentziarioaren logika.
- Eduki teknikoak:
 - Programazio didaktikoak indarrean dagoen araudian ezarritako curriculumeko elementu guztiak ditu, mailaren arabera.
- Eduki didaktikoak:
 - Ikasmailarako egokiak diren metodologia, materialak eta baliabide didaktikoak.
 - Prozedurak, lanabesak, tresnak eta ebaluazioari lotutako bestelako alderdiak zehaztea, Nafarroako Foru Komunitatean ebaluazioaren arloan aplikatu beharreko araudiari jarraituz.
 - Aniztasunari erantzuteko neurriak, arreta berezia jarriz hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleentzako neurriei.
- Komunikazioa gaitasuna:
 - Ideiak modu egituratu eta ulergarrian adierazi dira, komunikazio-testuinguruari egokitutako formalitate-mailarekin hitz egiteko gaitasunarekin.
 - Ebaluazio epaimahaiaren galderari emandako erantzunak egokiak eta koherenteak izan dira.

Unitate didaktikoa

Aurkeztutako programazioarekin zerikusia izan dezake, edo, bestela, norberaren espezialitatearen gai-zerrenda ofizialekin abiatuta presta daiteke.

Hiru unitate edo gai aterako dira auzaz eta horietako bat aukeratuko du izangaiak.

Nahi den laguntza-materiala erabili daiteke, bai eta gehienez ere bi orriko gidoi bat ere, amaitzean epaimahaiari entregatuko zaiona.

Bigarren probaren kalifikazioaren %70.	Oetik 10erako kalifikazioa.
Gutxienez 2,5 batezbestekoa egiteko.	

Zehaztapenak

Ikaskuntzaren helburuak, kompetentzia espezifikoak, oinarrizko jakintzak, irakaskuntza jardueren sekuentzia, hedatu beharreko ikaskuntza egoerak, ebaluazio prozedurak eta irizpideak, deskribatzaile operatiboak, metodo pedagogikoak, estrategiak eta espazioen eta denboraren antolamendua, materialak eta baliabideak, eta hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleentzako arreta.

Prestaketa eta azalpena baloratzeko irizpideak

• Alderdi orokorrak:

- UDa justifikatu da eta hari testuingurua eman zaio programazioaren edo espezialitatearen gai-zerrendaren barruan.
- Unitate didaktikoa ongi egituratuta dago eta haren elementuak koherenteak dira beren artean.
- Izangaiak azalpen argia, ordenatua, arina eta koherentea egin du.

• Helburuak, edukiak eta metodologia:

- Honako hauek ongi planteatuta daude eta elkarren artean koherenteak dira: ikaskuntza helburuak, kompetentziak (funtsezkoak eta espezifikoak), oinarrizko jakintza gisa adierazitako edukiak, metodo pedagogikoak eta ebaluazio irizpideak, ikaskuntza egoerak eta, Lehen Hezkuntzan, irteera-profila.
- Zehaztu da zer-nolako lotura duten oinarrizko jakintzek kompetentzia funtsezkoak eta espezifikoak garatzeari begira, bai eta kompetentziek deskriptore operatiboekin duten lotura ere.
- Metodo pedagogikoak bat datoz ikasleen ezaugarriekin.

• Jarduerak:

- Jarduerak motibagarriak dira eta zailtasun maila bat baino gehiago dituzte, ikasleen eta ikasmailaren ezaugarrietara egokitzeko.
- Guneak eta denborak antolatzea.
- Material eta baliabide didaktikoak erakargarriak, egokiak eta askotarikoak dira.

• Ebaluazioa:

- Ebaluazio irizpideak bat datoz helburuekin, kompetentziekin (funtsezkoak eta espezifikoak), deskriptore operatiboekin (HHn ez), oinarrizko jakintzekin eta aplikatu beharreko metodo pedagogikoekin.
- Prozedurek, ebaluazio tresnek eta kalifikazio irizpideek adierazten dute zer-nolako ekarpena egingen dioten ikasleen irteera profilari.
- Aniztasunari erantzuteko neurriak, arreta berezia jarriz hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleentzako neurriei.

• Komunikazio gaitasuna:

- Ideiak modu egituratuan eta ulergarrian adierazi dira, komunikazio-testuingurura egokitutako formalitate-mailarekin hitz egiteko gaitasunarekin.
- Ebaluazio epaimahaiaren galderari emandako erantzunak egokiak eta koherenteak izan dira.

8. Espezialitate berriak eskuratzeko prozedura (II. Titulua)

Espezialitateak			
Entzumena eta Hizkuntza	Haur Hezkuntza	Lehen Hezkuntza	Pedagogia Terapeutikoa

8.1. Eskaera

Bide telematikoa: <https://tramitespersonal.navarra.es/eu/tramites/on/-/line/concurso-oposicion-adquisicion-nuevas-especialidades-maestros-2024>

8.2. Dokumentazioa

- **NAN edo baliokidea.** Kopia eskaneatua, bi aldeetatik eta dokumentu bakar batean, edo Administrazioari baimena eman informazio hori kontsultatzeko (horretarako, atal bat gaitzen da parte hartzeko eskaeran).
- Espezialitate bakoitzeko tasaren ordainketa (41,60 eurokoa) modu telematikoan eskaera formalizatzean.

8.3. Hautapen sistema

Proba bakarra egingen da, honek bi zati izango dituelarik: espezialitateko gai baten azalpena eta zati praktikoa.

Izangaiak espezialitateko gai baten ahozko azalpena egin beharko du (hiru gairen artean aukeratuta), eta, ondoren, horren gaineko eztabaida bat egingen da, hori ere ahoz. Gaiak epaimahaiak aterako ditu zozketa bidez II.eranskinetako gai zerrendatik.

Azalpena osatzeko, planteamendu didaktiko bat egingen da, izangai bakoitzak libreki hautatutako ziklo edo ikasmaila jakin bati buruz.

Izangaiak bi ordu izanen ditu ariketa hau prestatzeko, eta egokia iruditzen zaion material osagarria erabiltzen ahalko du, berak ekarrita. Halaber, prestaketa denboran eginiko gidoi bat erabiltzen ahalko du azalpenean. Gidoi hori bi orrikoa izanen da gehienez, eta proba bukatutakoan epaimahaiari emanen zaio. Gaiaren azalpena eta planteamendu didaktikoa egiteko berrogeita bost minutu izanen ditu gehienez. Eztabaidak hamabost minutu iraunen du gehienez.

Eduki praktikoko zatia III.eranskinen ezarritako zehaztapenei lotuko zaie.

Zero puntutik hamar puntura bitarte baloratuko da proba, eta izangaiak gutxienez ere bost puntu lortu beharko dituzte proba gainditzeko. Puntuazioa honela banatuko da: zati praktikokoak %30 izanen du, eta gaiaren azalpen eta eztabaidaren zatiak %70. Epaimahaiak "gai" edo "ez gai" kalifikazioa emanen dio probari.



www.steilas.eus



EPE Nafarroa 2024

Maisu-maistren kidegoa

BIRJARTZEA